

TXIMELETAK ETA ARRAK

Animalien gaiarekin hasi ginen eta esan ziguten osinen arrak oso erraz hazten zirela. Orduan denak hasi ginen osinen arren bila. Iratik ar potolo bat ekarri zuen osinetan aurkituta. Gero 4.5.6. mailako , gelakoak joan ginen ar bila, eta ez zegoen arrik. Hurrengo egunean, irailaren 14an osinak hartu genituen ar pare batekin, eta kaxa batean sartu genituen. Hiru edo lau egun pasata gero, handitu ziren eta konturatu ginen arrak zirela ikusten ziren puntutxo beltz txikiak. Eta martzianoak ematen zuten, beltzak, pintxo batzuekin eta puntu gorriak zituztela.



Egunero begiratzen genituen eta neurtu ere bai, txikiak 1mm neurtzen zuen eta krisalidak egin baino lehenago 5cm neurtzen zuen handienak. Egunero ekartzen genituen osin freskoak eta arrek jaten pasatzen zuten egun osoa.

Irailaren 27an lehenengo krisalida azaldu zen. Arrek asko jaten dutenean eta potolotzen direnean, zerbaiten azpian jartzen dira eta orduan arrek burutik azala botatzen dute eta gero barrenean krisalida dago, orduan zintziliek gelditzen dira, zetazko hariekin eusten da



Hurrengo egunetan ar asko krisalida bihurtu ziren. Guk uste genuen tximeleta aterako zela krisalidatik, baina zalantza genuen. Zai gelditu ginen. Krisalidak kolore desberdinetakoak ziren, ba al dakizue zergatik? Zintzilikatuta dauden lekuaren kolorea hartzen dute, txoriak eta, ez jateko.

Zertarako egiten dute krisalida? Urriaren 18an, hau da hogeita bat egun beranduago, tximeleta handi bat atera zen krisalida batetik! Hurrengo egunetan tximeleta asko jaio ziren, beltzak, marroiak eta gorriak ziren. Pentsatzen dugu arrautzak jarriko zituztela, baina ez genituen ikusi.



Urriaren 21ean tximeleta bat hilda zegoen eta urriaren 23an askatu egin genituen tximeleta guztiak, lasai bizitzeko.